



LIZARTZAKO
UDALA
GIPUZKOA

UDALAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

BERTARATUAK

alkate-udal burua

IÑAKI AZPIROZ BELDARRAIN

zinegotziak

JONE ZUBELDIA ALTUNA

ENEKO ARTEAGA USANDIZAGA

ITZIAR SAENZ DE OJER MARTINEZ

IRAITZ OLAETXEA BALERDI

SABINO SAN SEBASTIAN MURUA

IDAZKARIA

ANA JESUS ZABALA GARMENDIA

Lizartzan, 2021eko apirilaren 12an, arratsaldeko 19:00etan, eta Udaleko alkate udalburua, Iñaki Azpiroz Beldarrain izanik, Udaletxeko Bilkura Aretoan bildu dira alboan adierazitako zinegotziak.

Bilkuraren fede ematen du Ana Jesus Zabala Garmendia, udal-idazkari-kontu hartzaileak.

Bilkurari hasiera eman dio presidenteak, eta hauek izan dira jorratutako

GAIAK

LEHENA. AURREKO BILKURAKO AKTA ONARTZEA.

Alkateak, aurreko saioaren aktari ezer esatekorik badagoen galdetu du, eta inork ezer esatekorik ez duenez, aho batez onartu da.

BIGARRENA. ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA

Udal honi subsidiarioki aplikagarri zaion apirilaren 2ko 7/85 Legearen 22.2 a) artikuluan adierazitako ahalmena gauzatzearen, eta Tokiko Erakundeen Antolakuntza, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoari buruzko Araudia onartzen duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 42. artikuluan adierazitakoari jarraiki, Udalburuak Batzarrari jakinarazi dizkio ohiko azken bileraz geroztik hartutako erabakiak:

2021/33 Dekretua

2021/35 Dekretua

2021/45 Dekretua

2021/49 Dekretua

2021/53 Dekretua

2021/57 Dekretua

2021/63 Dekretua

2021/34 Dekretua

2021/39 Dekretua

2021/46 Dekretua

2021/51 Dekretua

2021/55 Dekretua

2021/60 Dekretua

2021/64 Dekretua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

2021/66 Dekretua

Jakinaren gainean gelditu da Batzarra.

HIRUGARRENA.- GURUTZ BIDEA KALEAN, MIENDA ETXEAREN ATZEKALDEAN, KALEAREN OFIZIOZKO BERRESKURATZEA

Gaia: Jabari publikoko bidea ofizioz berreskuratzea GURUTZ BIDEA, FRANCISCO OLAETXEA KARRERA jaunak eta CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA andreak aipatutako bide publikoaren trazaduraren zati batean enborrak pilatuz berriki egindako usurpazio-ekintzenaurka.

Ikusita 2021eko otsailaren 19an jabari publikoko bidea ofizioz berreskuratzekeo administrazio-espeditentea hasteko erabakia, FRANCISCO OLAETXEA KARRERA eta CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA jaun-andreek bide publiko horren trazaduraren zati batean enborrak pilatuz berriki egindako usurpazio-ekintzen aurkakoa.

ONDORIOZTATUTA.- Interesdunei entzunaldi-izapidea irekitzeko erabakiaren berri emandako epean, FRANCISCO OLAETXEA KARRERA eta CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA jaun-andreek honako alegazio hauek aurkeztu zituztela 2021eko martxoaren 8an

- a) Alegatzen da enborrak pilatu diren lursaila titulartasun pribatukoa dela, eta, horregatik, Udalak ezin zuela bide publikoko ofizioa berreskuratzekeo espeditenterik izapidetu, ez baitzen jabari publikoko ondasun bat. Hori egiaztatzekeo, interesdunek zenbait dokumentu aurkeztu zituzten, egindako baieztapena bermatzeko.
- b) Interesdunek adierazten dute udal batek ondasunak eskuratzeko eskritura publikoa behar dela oro har, eta ez dela nahikoa eskuratzeko erabakiaren administrazio-ziurtagiria edo agiri pribatu bat. Interesdunek adierazten dute bidea Jabetza Erregistroan inskribatu gabe "Ayuntamiento no puede convertirse en juzgador de la existencia o no de un derecho de propiedad que no figura inscrito ni está registrado a su favor".

ONDORIOZTATUTA.- Egoki irizten da alegazioak ezestea eta usurpatu beharrekeo bide publikoaren azalera berreskuratzekeo erabakia hartzea, FRANCISCO OLAETXEA KARRERA ETA CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA jaun-andreek egindako enbor pilatzearen ondorioz, honako arrazoi hauetan oinarrituta:



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

a) Interesdunek aurkeztutako dokumentaziotik ez da ondorioztatzen lursaila titulartasun pribatukoa denik; izan ere, espedienteari erantsitako dokumentalaren azterketatik, hain zuzen, kontrakoa ondorioztatzen da. Ildo horretan, 2-6 dokumentuen irakurketatik, 1.216, 1.221, 1.222 eta 1.223 finken erregistro-informazioa eta eskritura publikoaren kopiari buruzkoa, egiazta daiteke FRANCISCO OLAETXEA KARRERA jaunaren eta CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA andreaken lursailaren jabetzaren mugetako bat Gurutze Kalea dela, interesdunek enborrak pilatzeko erabiltzen duten lur-zerrenda aipatutako bide publikoaren parte ez dela ondorioztatzeko inolako daturik ikusten ez dugularik.

Aurrekoa esanda, ez dugu ahaztu behar interesdunek enborrak pilatzean Lizartzako Udalerriko indarreko Arau Subsidiarioek bide publikotzat jotzen duten bide baten zati bat okupatu dutela, eta bide hori Udal Ondasunen Inbentarioan jabari publikoko ondasun gisa inskribatuta dagoela. Era berean, ezin da alde batera utzi Udalak antzina-antzinatik izan duela eztabaidagai den bidearen edukitza, eta udalerriko herritar guztiek erabiltzen dutela. Horrez gain, Udalak edukitza, kontserbazio eta mantentze-egintza publiko ugari egin ditu, hala nola, interesdunek alegazio-idazkian aipatzen dituzten asfaltatze-obrak.

Ondorioz, egiaztatutzat jotzen da jabari eta erabilera publikoko bidearen izaera, baita aipatutako bidearen jabetza publikoa ere, Udalak, kontserbazio- eta mantentze-ekintzak egiteaz gain (besteak beste, bidea asfaltatu du), etengabeko jabetza-ekintzak egin dituelarik, bide hori egunero erabiltzen delarik, besteak beste, Udalerriko bizilagunak herriko Kale Nagusira pasa ahal izateko. Are gehiago, ez dago egiaztatuta bideak okupatutako lursaila jabetza pribatukoa denik; izan ere, ez da agertzen interesdunen izenean jabetza-erregistroan, interesdunek aurkeztutako dokumentuetan argi ikusten baita jabetzaren jabariaren muga Gurutze Kalea hasten denean amaitzen dela.

b) Bidea Jabetza Erregistroan inskribatu gabe dagoen alegazioari dagokionez, zeinetan esaten den "el Ayuntamiento no puede convertirse en juzgador de la existencia o no de un derecho de propiedad que no figura inscrito ni está registrado a su favor" hau ere atzera bota behar da.

Egiaztatutzat jo da eztabaidagai den lur zatia jabari eta erabilera publiko argikoa dela; beraz, Lizartzako Udalak, Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamendua onartzen duen ekainaren 13ko 1372/86 Errege Dekretuaren 70. artikulua eta horrekin bat datozenen arabera, ofizioz berreskura dezake bere jabari publikoko ondasunen edukitza.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Ildo horretan, interesgarritzat jotzen da Auzitegi Gorenaren 1990eko otsailaren 8ko epaia aipatzea, zeinaren bosgarren oinarri juridikoan honako hau adierazten baita:

“...esa recuperación posesoria podrá tener lugar tanto si se trata de un despojo absoluto y total de la posesión como de perturbaciones de la anterior situación posesoria... esa recuperación posesoria, sin perjuicio de las acciones que puedan ejercitarse con posterioridad, puede ejercitarse de forma inmediata, lo mismo si está encaminada a eliminar los obstáculos que impiden el libre tránsito de personas o vehículos en una vía pública de una población o en una vía pública de cualquier otro municipio ante cuya actuación no cabe alegar la vulneración del artículo 24.1 de la Constitución (EDL 1978/3879) por no haberse concedido previamente la posibilidad de formular alegaciones, proponer prueba, concesión del trámite de audiencia, etc., que dilatarían indefinidamente el fin inmediato que se pretende mediante la concesión a las Corporaciones Locales de esta facultad de recuperar la posesión de sus bienes...”.

Horrenbestez, agerikoa da Udalak gauzatutako jarduketak administrazio publikoen ondasun eta eskubideen arloan indarrean dagoen legeriak ematen dituen ahalak dituela oinarri. Alde horretatik, Administrazio Publiko honek ez du ezagutzen jabari publikoko ondasun bat Jabetza Erregistroan inskribatuta ez egoteagatik, ofizioz berreskuratzeko espediente bat hastea eragozten duen araurik dagoenik.

Are gehiago, gogoratu behar da espedienteen dagoen dokumentaletik ondorioztatzen dela interesdunek eurentzat erreklamatzeko duten eremua ere ez litzatekeela haien alde inskribatuta egongo; beraz, interesdunek erabilitako logika bera erabiliz, esan liteke ezingo liratekeela haren jabetzat hartu.

ONDORIOZTATUTA.- GURUTZ BIDEA kalea, gaur egun, FRANCISCO OLAETXEA KARRERA jaunak eta CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA andreak egindako enborren pilaketagaitik okupatuta dagoena, antzinatek erabilera- eta jabari publikoko bidea izan dela, okupazioa hori Udal honen baimenik gabe egin delarik, Udalak ez baitu inoiz baimendu bide publikoa gauzatu den moduan okupatzea.

ONDORIOZTATUTA.- Erabilera eta jabari publikoko bidean enborrak pilotzearen ondoriozko okupazioa usurpazioa dela, egitate horrek ofiziozko berreskuratzeko espedientea izapidetzeko Administrazio honi ahalmena ematen diolarik, ondasun horren edukitza berreskuratzeko, eta, dagokion espedientea egin ondoren, bidea edozein okupaziotik libre uzteko, lehen zegoen baldintza berberetan.

KONTUTAN IZANDA.- Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 68. artikuluan ezarritakoa.



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

KONTUTAN IZANDA.- Toki Erakundeen Ondasunen Erregelamenduaren 44.1.c) artikuluan eta 70. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa, toki-erakundeek beren kabuz berreskuratzeke ahalari buruzkoa, Lizartzako Udalak,

ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Ofizioz berreskuratzea GURUTZ BIDEA bide publikoa, zeina FRANCISCO OLAETXEA KARRERA jaunak eta CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA andreak aipatutako bide publikoaren trazaduraren zati batean enborrak pilatuz okupatu duten, horretarako, ebazpen hau jakinarazten denetik zenbatzen hasita, hamabost laneguneko epea emanez okupatutako bide zati publikoa libre utz dezaten, bertan dauden enborrak kendu eta kalea enborrak jarri aurreko baldintza berberetan utziaz.

Ohartarazten da, emandako epean errekerimendua borondatez betetzen ez bada, Lizartzako Udalak ofizioz berreskuratuko duela, betearazpen subsidiarioan, eta Udaleko teknikariak bide publikoa berreskuratzeke lanak egitera joango direla, enborren pilaketa kenduz eta lursaila lehengo egoerara bueltatzeko beharrezko obrak gauzatzeagatik loturiko gastu guztiak, partikularren ondarearen kontura eginez eta, beharrezkoa bada, bere ondarearen gaineko premiamendu-bidera joaz,% 20ko gainkarguarekin.

BIGARRENA.- Erabaki hau FRANCISCO OLAETXEA KARRERA ETA CONCEPCIÓN GOIKOETXEA URREAGA jaun-andreei jakinaraztea, eta jakinaraztea erabaki horren aurka aukerako berraztertzeke errekurtsua aurkeztu ahal izango dela Udal honetan, hilabeteko epean, edo, bestela, zuzenean administrazioarekiko auzi-errekurtsua jarri ahal izango dela Donostiako Administrazioarekiko Auzien Epaitegietan, jakinarazpena jaso eta bi hilabeteko epean.

LAUGARRENA.- ARTXINTXARDI BASOAREN ENKANTEA

LIZARTZAKO UDALAREN JABETZAKO “NARBAITZU” 2.054.2 zk.dun HERRI ONURAKO MENDIAREN “ARTXINTXADI” UNADAN BASO BANKANKETA ETA ERABATEKO MOZKETA BITARTEZ EGUR USTIAKETA EGITEKO EZAUGARRI TEKNIKOEN ETA BALDINTZA ADMINISTRATIBO BEREZIEN AGIRIAK

1.- Ustiaketaren ezaugarriak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

1.1. Baldintza agiri hau goian aipatutako mendi eta unadan, bakanketa (entresaka ere deitzen zaio, nahiz eta hori ez izan) eta erabateko mozketak (matarrasa ere deitzen zaio, nahiz eta hori ez izan) bitartez egingo den egur ustiaketa dagokio.

1.2. Unda bakarra izan arren, baso gazteena dagoen zatian erabateko mozketak egingo da intsinis pinua neurri batean gaixorik dagoelako, eta beste zatian, Japongo alertzea dagoenean, baso bakanketa burutuko da, dauden zuhaitzik hoberenak utziaz eta exkaxenak basotik kenduaz. Zati hau, lehenaren garaiko aldean kokatzen da, larre-gunea eta intsinisaren artean.

1.3. Ustiaketaren kokapena eta ezaugarriak

* Kokapena:

Esan bezala, unada bakar bat da, "ARTXINTXARDI" izenez ezaguna, honekin batea doan ortoargazkian ikusi daiteken moduan.

* Espezieak:

Pinus radiata (intsinis pinua) eta Larix Kaempferi (alertze japoniarra), estereotan izango duten garrantziaren arabera.

* Azalera:

Guztira, 3,22 ha., zeina, 2,90 ha intsinis pinuaren erabateko mozketarenak dira, eta beste 0,32 ha. Alertze sailean bakanketa burutzekoak. Orotokotoan ikusi daitezke.

1.4. Benetan dagoena

2,90 ha-ko azalera intsinis pinuarekin eta 0,32 alertzearekin, ustiapenak, lehenean erabat moztuaz egingo dea eta bigarreanean, aldiz bakanketa bitartez.

1.5. Gutxi gorabeherako kopurua

Bataz beste, aprobetxamendu honetatik aterako direla espero den egur kopurua, **1.190 estereo** egur da, hain zuzen ere, 1.160 estereo egur intsinisean eta 30 estereo alertzean.

1.6. Tasazioa



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Ustiapen honetan aurreikusten diren 1.190 estereoen prezioa, ustiapena, leku eta baldintza berezietan burutuko denez, aldez aurretik lortu diren eskaintzen baitan, **11.900,00 €** izango da (BEZik gabe) estereoko **10,00 €**-tan (BEZik gabe). Indize preziorik ez dago kasu honetan.

1.7. Produktuak ordaintzeko merkataritza unitatea

*** Bukaerako neurketa egitean**

1.8. Ustiaketaren likidazioa. Esleipenaren benetako prezioa

Azken likidazioa eratorriko da, eskainitako prezioa, azken neurketaren baitan, benetan ustiatutako egu bolumenaren estereo kopuruaz bidertu ondoren.

1.9. Gauzatzeko epea

Egur aprobetxamendu honen amaiera da **2021eko urriaren 31** izango da. Ezinbesteko kasuetan izan ezik, Zerbitzu honek baloratuko lituzkeenak betiere, epe horren barruan amaitu beharko da guztiz ustiapena, hau da egurra atera eta garraiatzeko lanak barne.

1.10. Ustiaketarako baimena lortzea

Zuhaitz mozketa hasi baino lehen, ustiaketarako baimena lortu beharko da. Horretarako tasak, "Hobekuntzarako" %20a, eta jabea den Udalak ezarriko dituen baldintza ekonomikoak bete beharko dira.


2.- Baldintza Orokorrak

Gipuzkoako Mendiei buruzko Foru Arauan, Ezaugarri Teknikoen Agiri Orokorretan eta Berezietan, 1975eko apirilaren 24ko 1.675 Ebazpenean (BOE 200 zk. 1975-08-21), eta 1975eko maiatzaren 6ko 1.672 Ebazpenean (BOE 199 zk., 1975-08-20) xedatutakoak beteko dira.

3.- Baldintza Bereziak

3.1. Tasak: 146,45 €

3.2. Egurra ateratzeko bideak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Gaur egun mendian daudenak, dauden bezalaxe. Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak behin betiko esleipena egiten den arte bakarrik bermatuko du aterabideen egoera, eta beti exijituko du erabiltzeko moduan egon daitezela eta, ustiaketa bukatu ondoren, bideen egoera, mendia entregatu zen garaian zegoen bezalaxe egon dadila.

Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuak ez du bere gain hartuko, herri onurako mendiaren barruan ez dauden beste bide batzuk erabiltzerakoan edo horietarako beharrezko baimena ematerakoan sor daitekeen beste edozein erantzukizun.

3.3. Egurra arrastaka eramaten duten makinak **ezingo dira** erabili mozketan egiten ari den tokian, Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuaren teknikarien baimena ez badute behintzat, beren lana egun dauden edo eraikitzeak diren bideetan egin beharko dutelarik.

Kontratista errematatzailerak "autokargatzaile" motake makineria bat erabili nahi badu, 1. Baso ataleko teknikariek emandako **berariazko baimena izan beharko du**, besterik ez bada, ahoz emandakoa.

3.4. Ikusirik gaur egun dauden bideekin ezin dela egur ustiapen hau burutu, daudenen eguneratzea eta falta den sailaren gunean behar den berria, ustiapenaren zati handiena ateratzea ahalbidetuko lukeenaren irekitzea, mendiarentzat oinarrizko jotzen diren heinean, lan horien kostuak Baso Administrazio honek bere gain hartzen ditu.

4.- Segurtasuna eta Osasuna

Obraren kontratista esleipendunak **Lan Arriskuen Prebentzioari buruzko 1995eko azaroaren 8ko 31/1995 Legean** zehaztutako xedapenak beteko ditu (BOE 269 zk. 1995eko azaroaren 10a).

Edozein lanetan bezala eta basoko lanetan zer esanik ez, egur ustiapen hau burutzerakoan egin beharreko lanek, langileen segurtasuna edo osasuna arriskuan jar dezakete.

Hainbestez, kontratista esleipendunak honako legedia bete beharko du, batetik, **1997ko maiatzaren 30eko 773/1997 Errege Dekretua, langileek norbera babesteko ekipoak erabiltzeari buruzko segurtasun eta osasuneko gutxieneko xedpaenei buruzko** (BOE, 140 zk. 1997ko maiatzaren 12koa), eta bestetik, **1997ko uztailaren 18ko 1215/1997 Errege Dekretua, langileek laneko ekipoak erabiltzeko gutxieneko**



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

segurtasun eta osasun xedapenak ezartzen dituena (BOE 188 zk. 1997ko abuztuaren 7koa).

5.- Baldintza Ekonomikoak

Jabea den Udalak ezarriko dituenak. Mozketa baimena luzatu aurretik udalak adierazi beharko dio Zerbitzu honi, esleipendunak baldintza horiek onartu dituela, onarpenik ezean lanekin hasterik ez du eta izango.

6.- Behin Betiko Bermea

Ustiapenaren behin betiko esleipena egin aurretik, esleipendunak behin betiko bermea eratu beharko du arauzko moduan, berme horren gutxienezkoa, kontratuaren esleipen prezioaren % 5 izango delarik (**525,00 €**). Mendiaren jabe den udalak, kopuru hau legeak onartzen duen gehiengora arte handitu ahal du. Bermea udalean ezarri beharko da.

7.- Bestelako Baldintzak

7.1. Lanen sekuentzia

Lehenik eta behin, aprobetxamendua burutuko den unadan dauden bideen irekitzea edo konpontzeko lanetan eraitsiko diren zuhaitzen aprobetxamendua burutuko da.

Ahaleginik egingo da, egur ustiapenaren lanak eta bideen irekitze edo hobetze lanak garai berdintsuan izan daitezen.

Hala izanda, ustiapenaren esleipendunak makinistari lagundu beharko dio hark botako dituen zuhaitzen enbor-zain (motzondo) zatih oriek arriskurik gabe asentatu edo lurperatu ditzan.

7.2. Behe bakanketa burutuko den unadan, egun alertzepean egon ahal den landaredia babestuko da mozketan lanak burutzeko garaian.

Besterendutako azalera benetan dagoen zuhaitzi guztia ustiatu beharko da.

7.3. Mozketa irizpideak



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

Bakanketa bidez ustiatuko den unadan, zuhaitzen hautaketa behe bakanketa bitartez egingo da, hau da, menpeko zuhaitzak eta gaizki osatutakoak moztuko dira batez ere, eta gailentzen direnak eta ondo osatuak utziko dira.

Moztutako zuhaitzen motzondoren altuera ez da 10 cm. Baino altuagoa izango, (alde txikiena, maldan kontra neurtuta).

7.4. Intsinis pinuaren erabateko mozketa burutuko den unadan berriz, ikusirik zutik ihartuta dagoen, zein hautsita eta erorita dagoen zuhaitz kopurua, lehentasuna emango zaio ahalik eta pinu egur bolumen handiena ustiatzeari.

Ekintza horrek pinupean gon ahal den landaredian sortu ahal dezkaeen eragina baino ahalik eta pinu egur bolumen handiena basotik ateratzea izango da helburu nagusia.

7.5. Egur bolumena estereotan honela kalkulatu da: kamioiaren luzera bider egurren batez besteko zabalera bider kamioian pilatutako egurrek hartzen duten batez besteko altuera.

Batez besteko altuera, se neurketen (3 kamioaren albo bakoitzean) batez besteko aritmetikoa eginez aterako da; neurketa, kamioaren "plataforman" hasi eta neurketa tokian egokitu den apearen goi-muturrean bukatuko delarik.

7.6. Produktuen neurketa Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzuan horretan ardura dutenek egingo dute, eurak eta esleipendunaren ordezkari batekin. Neurketak, dagozkien orrietan idatziko dira eta neurtu ondoren bi aldeek sinatuko dituzte.

Mendian bertan, egurra pilatzeko lekuetan ere neurketarik egin ahalko da, horrela eginez gero egur pila pinturaz marraztuko delarik, kontrol lanak errazte aldera.

7.7. Aprobetxamenduen esleipendunak eremuren bat aprobetxamendua egin gabe uzten badu, aprobetxamendua eten daiteke. Hori guztia kalte ordainak aplikatzea eragotzi gabe, Ezaugarri Teknikoen Agiri Orokorreko 41.1 artikuluan jasotzen den bezala, eta agiri honetan 2. baldintzan aipatzen dena.

8.- Ingurumen Arauak

8.1. Arreta berezia jarriko da edozein motatako mekineria erregaiak hornitzen denan, erregai isuriak saiheste aldera. Debekatuta dago mendian uztea edozein motatako



LIZARTZAKO

U D A L A

GIPUZKOA

ontziak, are gehiago olioak, gantzak edo erregaiak eduki badituzte. Era berean, debekatuta dago egurra ateratzeko erabilitako kableak mendian uztea.

8.2. Ez dira moztuko ezta menditik aterako ere, pizidoen zuloan dituzten hostozabal zuhaitzak, bereziki ur korronte alboetakoak. Arreta nagusia jarriko da baso harraparien habiak dituzten oinak ez kaltetzen.

Era berean, ibarbasoko espezieetako zuhaitzak moztea ekidingo da, (sahatsak, haltzak, eta bar), nolatan da pisten mantentze edo hobetze lanak ez duten exijitzen edo zuhaitziko oin nagusienei kalte egiten ez dieten.

8.3. Basotik ahalik eta egurrik gehien aterako da, kontu izanik gaixotasunak jota ihartutako oin mordo handi bat dagoela unadetako batean.

8.4. Aprobetxamenduaren kontratista esleipendunak arreta berezia jarriko du mozketa eremuan egon daitezkeen monumentu megalitikoak kontserbatzeko. Edozein zalantza argitzeko, mendiaren ardura duen basozainarekin kontsultatu beharko da.

8.5. Eusko Jaurlaritzak argitaratutako 1:20.000 eskalan dagoen planoaren baitan, zeinean kokatzen eta katalogatzen baitira herri onurako mendietan dauden kultur ondarearen elementuak, mozketak egingo diren mendian ez dago monumentu megalitikorik eta mendia ez dago ezta, balizko arkeologia zonaldean.

9.- Jurisdikzio Eskumenduna

Sinatutako kontratutik erator daitezkeen edozein auzi administrazioarekiko auzietako auzitegiek ebatziko dute.

Lizartzako Udalaren jabetzako "Narbaitzu" 2.054.2 zk.dun herri onurako mendiaren "Artxintxardi" unadan baso bakanketa eta erabateko mozketa bitartez egur ustiaketa egiteko ezaugarri teknikoen eta Baldintza Administratibo Berezien Agiriak, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu dira.

BOSGARRENA.- TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA - ATARIA. HITZARMENA

TOLOSALDEKO KOMUNIKAZIO TALDEA S.M.k, 2021 urterako Lankidetzeta Hitzarmena aurkeztu du, TKT-k eta Udalak, elkarlanean, hedabideen alorrean euskararen erabileraren normalizazio lanak bideratzeko.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Horretarako, TKT, alde batetik bigarren klausulan aipatzen diren ekoizpen ildoak garatu eta hobetzen ahalegintzeko konpromisoa hartzen du, eta aipatutak ildoak bideratzeko, herritarrei eskaintzen zaien zerbitzua ere baden heinean, hirugarren klausulan agertzen diren konpromisoak hartuko lituzke.

Udalak bere aldetik, proiektua indartu eta bere bideragarritasuna bermatzeko ekimen lerroak garatzeko konpromisoa hartuko luke laugarren klausulan arabera.

Ekimen lerroak, hurrengoak dira:

- a) Diru ekarpen zuzena. Proiektuaren luzerako bideragarritasuna eta egonkortasun ekonomikoa bermatzeko, hitzarmen hau lau urtekoa (2019-2021) izango da. Urtean urteko errola eguneratuaren arabera biztanleko 5,00 € emango dizkio, 2021 urtean, Udalak TKTeri. Erabaki hau urtez urte berretsi beharko du Udalak diru-kopuru zehatza adierazten duen berriazko ebazpena bidez, hartzaileak aurkeztutako aurreko urteko zurieta dokumentuak (hitzarmenaren 6. puntua) eta dagokion urteko egitasmoa aztertu eta gero.
- b) Publizitatea. Erreferentzialtasuna irabazteko, publizitatea egitea behartuak dauden iragarki ofizial eta eskelak Tolosaldeko Atarian jartzeko konpromisoa hartzen du Udalak tarifatik %50eko deskontuarekin. Gainerako publizitatea, urteko fakturazioaren arabera negoziatuko dute bi alderdiek; hala balitz, urtean-urtean adostutako plangintza komertzialean islatu litzateke.
- c) Beste euskarriak. Ohiko ekoizpenetik at, Udalaren eta TKT-ren artean osatuko den lan-taldeak, adostutako proiektua sustatzeko diru ekarpen bereziak egin ahal izango ditu udalak.
- d) Sozializazio eta banaketa. Herritarren eta bertako indar eragileen borondatea eta lankidetzaren erakartzeko Udal zerbitzuen kooperazioa izango du TKT-k
- e) Informazioaren kudeaketa. Udalak berak edo herrian sortzen den informazio jariora sistematikoki trukatzeko neurriak hartuko dituzte Udalak eta TKT.k

Ekarpenari buruz, segiarren klausulak honela dio:

“Seigarrena.- Aipatutako diru ekarpen zuzena (4.^a puntua) honela egingo da: hitzarmenean adostutako diru-ekarpena osoa dagokion urteko egitasmoa eta aurrekontua aurkeztu eta hilabeteko epean jasoko du TKT-k. Urte amaieran, jardunaren oroitidatzia eta Udalaren diruekarpena osoa zurtzeko fakturak edota



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

berauen fotokopia konpultsatuak eta zerga zein gizarte segurantzako betebeharrak egunean izatearen ziurtagiriak aurkeztu beharko dira.”

Diru ekarpenari buruz

Hitzarmenaren xedea, eta alde biek hartutako konpromisoak aztertuz, argi dago, Lizartzako udalak, diru laguntza bat ematen dioa TKT-ri.

Zentzu horretan, Hitzarmen proposamenerako VI aurrekarian aipatzen diren, Eusko Jaurlaritzak ohezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kulturako sailburuak “2018-2021 epealdian euskarazko hedabideak sendotu, eraginkortu, garatu eta normalizatzeko” diru-laguntzak emateko araubidea ezarri eta deialdia egiteko dena (Hedabideak deialdia), onartzen duen 2016ko uztailaren 20ko agindua, eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasuneko Zuzendaritza Nagusiak programen kontura euskararen erabilera sozialaren esparruan diru laguntzak oinarri arautzaileak, diru laguntzak dira.

Hitzarmenak, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa. Apirilaren 7ko 2/2016 Legearen, 7.5 artikulua xedatutakoa gainditzen du.

Artikulu horrek honeladio:

“Toki-erakundeek euskararen arloan aitortuak dituzten eskumenak baliatzeko, hitzarmenak izenpetu ahal izango dituzte; mankomunitate, partzuergo, elkarte eta udalerriz gairik bestelako erakundeak sortu edo halakoetan esku hartu ahal izango dute, eta elkarlanerako beste modu batzuetara jo ahal izango dute, erakunde publiko edo pribatuekin”.

Urriak 1eko Sektore Publikoaren Araubide Juridikoaren 40/2015 legearen 48. artikulua, hitzarmenaren balio eta eraginkotasun baldintzei buruzkoa bere 7. atalean honela dio:

“Cuando el convenio instrumento una subvención deberá cumplir con lo previsto en la Ley 38/2003, de 27 de noviembre, General de Subvenciones y en la normativa autonómica de desarrollo que, en su caso, resulte aplicable.”

Kasu honetan, Diru-laguntzen legea izan litzateke aplikagarri, hitzarmenak diru-laguntza bat osatzen bai du.



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

Tolosaldeko Komunikazio Taldeak S.M. proposatutako lankidetzaz hitzarmenak, diru-laguntza bat gordetzen du. Beraz hitzarmena sinatu aurretik, Diru-laguntzen legeak dioena bete beharko da. Hau da, diru laguntza zuzena emateko baldintzak betetzen diren ikusi eta ala bada zentzu horretan izapidetu.

Guzti hori kontutan izanik, eta Diru-laguntzen legeak dioena betetzen denez, 2021 urterako, 3.145,00 €-tako diru-laguntza zuzena ematea erabaki da.

MOZIOAK

EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos, ELA, LAB, UGT, CCOO, STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT eta CNT-ren ADIERAZPENA

Gaur gure udalerriko hiritarren aurrean aurkeztu garen alderdi politikok pertsona euskaldun presoek Espainiako Gobernuak aplikatzen dizkien politikei buruzko gure azterketa eta balioespena ezagutarazi nahi dizkiegu Espainiako Gobernuari eta euskal zein nafar iritzi publikoari.

Sinatzen dugun alderdiok, euskal erakunde gehienetan eta sindikatu gehienekin askotan adostu ditugun adierazpenetan honako hau eskatu izan dugu: *“Espetxeetako Lege Orokorra aurreikusten duena bete dadila, askatasunaz gabetzen duten zigorrak bete daitezten norbere inguruetik deserrotu gabe, birgizarteratzearen printzipioek adierazten duten moduan. Zentzu honetan, 2011 urtean ETak jardura armatua utzi zuenean irekitako denboraldi berriaren barruan honako hau adierazten dute: beharrezkoa dela beste espetxe politika bat, presoek beren gizarte eta familiarako erroak dituzten lekuetatik urrun zigorrak bete beharra ekidindo duena. Politika berri horrek presoak bere familiarekin harremanak izatea erraztuko du eta adin txikiko seme-alaben ongizateari begiratuko dio, gurasoek haiekin egoteko duten eskubidea defendatuz”*.

Covid-19ak eta konfinamenduak pandemia honek espetxeratuentzat dituen ondorioei buruzko eztabaida ireki dute. Hilabete hauetan ugariak izan dira erakunde politiko eta sozialen ekimenak, nazioarteko erakundeen gomendioak jarraituz, Europatik, Madriletik, Gasteizetik eta Iruñetik eskaera hau egin dutenak: dagokien agintariek har ditzatela neurri espezifikoak pertsona presoek begira, haien osasun eta segurtasun baldintzak hobeto daitezten eta hobera egin dezaten osasun krisialdiaren ondorioek bereziki ukitu dituzten legedi juridikoko eskubideek ere.

Zentzu honetan, bereziki garrantzitsua jotzen dugu 2020ko apirilaren 27ko Eusko Jaurlaritzaren proposamena, honako hau baieztatzen duena: *“Espetxeetako Lege Organiko Orokorren 12.1 artikulua araberan, Covid-19 izurritearen ondorioen*



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

testuinguruan eta osasun publikoa prebenitu eta babesteko helburuarekin, egitasmo orokor bat artikulatu behar da espetxeratu guztiak preso bakoitzaren familia ingurunetik hurbilen dauden espetxeetara hurbilduak izan daitezen”


Euskal Autonomia Erkidegoko gizarteak bakearen eta bizikidetzaren aldeko apustu garbia egin du. Hainbat modutako eta etengabeko eskaerak egin ditu, iraganeko logiken araberrako espetxe politika behin betirako gainditu dadin.

Ondorioz, honako hau adierazi nahi dugu:

1. 2011tik irekita dagoen errealitateari jarraiki, Espainiako Gobernuari helarazten diogu Euskadiko Autonomia Erkidegoko gizartearen eta adierazpen honen sinatzaileen sostengu osoa, pertsona euskaldun presoek legedi arrunt soila eta espetxe politika normalizatu bat aplikatzeko beharrezkoak diren urratsak ematea erabakitzen badu, aldatzear dugun iraganeko logiken araberrako legedian oinarritutako egoera behin betiko gaindituz.
2. Espetxeetako Lege Orokorrean aurreikusitakoa betetzea eskatzen dugu berriro ere, askatasunaz gabetzen duten zigorrak betetzean deserrotzerik gerta ez dadin. Askatasunaz gabetzen duten zigorrak familia eta gizarte sustraiak dituzten lekuetatik urrun betetzea ekidingo duen espetxe politika bat ezinbestekoa jotzen dugu.
3. Premiazkotzat jotzen dugu egungo urruntze politikari amaiera ematea eta Covid-19aren egungo testuinguruan gure sostengua adierazten diegu honako egitasmo hau artikulatzera zuzendutako proposamen guztiei: espetxeratu guztiak orokorrean eta pertsona preso bakoitza, partikularrean, hurbil ditzatela beren familia ingurunetik hurbilen dauden espetxeetara. Euskal Autonomia Erkidegoaren kasuan Martutene, Basauri eta Zaballako espetxeetan birkokatzea dakar neurri horrek.
4. Helburu hau betetzeak modu erabakigarrian esku hartuko luke euskal gizartean eta politikan iraganarekin lotutako etapa bat ixten eta aukera emango luke, biktima guztiak oroitzuz, bizikidetzaren demokratikoan ardaztutako orainaldiko eta etorkizuneko denboraldi berri bat eraikitzen.

Akordio hau Etxerat elkarteari helaraztea, konpromiso hau gizarteratzeko eta ezagutarazteko.

Amaitzeko, egoera hau jasaten ari diren pertsona presoen senitarteko eta adiskideei ezagutarazi nahiko genieke hartua dugun konpromisoa, aipatu helburua



LIZARTZAKO
U D A L A
GIPUZKOA

lortzen laguntzeko beharrezkoak diren urratsak ematekoa.

EAJ-PNV, EH Bildu, Elkarrekin-Podemos, ELA, LAB, UGT, CCOO, STEE, ESK, Hiru, Etxalde, EHNE, CGT eta CNT-ren adierazpena, aztertu eta eztabaidatu ondoren, aho batez onartu da.

SEIGARRENA.- BESTELAKOAK

Ez dago bestelakorik.

Eta beste gairik ezean, alkateak amaitutzat eman du bilkura, arratsaldeko zazpi t'erdia direnean, eta nik, idazkari naizen aldetik, horren fede eman dut.

ALKATEAK
Izpta: Iñaki Azpiroz Beldarrain

IDAZKARI-KONTU HARTZAILEAK
Izpta: Ana Jesus Zabala Garmendia